Eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela eta aurkeztutako merezimenduak benetakoak direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek eskabidearekin batera. Horretaz gain, komenigarri ikusten dituzten argitalpen, txosten edota bestelako agiriak ere aurkez ditzakete.

Laugarrena.– Osakidetzako zuzendari nagusiak ebatziko du deialdia, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunaren biharamunean hasi eta, gehienez, hilabeteko epean. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka errekurtso arrunta aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko maiatzaren 26a.

Osakidetzako zuzendari nagusia,
FRANCISCO VILLAR COLSA.

A la citada solicitud deberán los aspirantes adjuntar además la documentación justificativa de los requisitos exigidos y de los méritos alegados. Así mismo, podrán acompañar cuantas publicaciones, informes o cualesquiera otros documentos estimen oportunos.

Cuarta.– La resolución de la presente convocatoria se llevará a cabo mediante Resolución del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Quinta.– Contra la presente Resolución podrá interponerse Recurso de alzada, ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de mayo de 1999.

El Director General del Servicio vasco de salud,
FRANCISCO VILLAR COLSA.

Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-2705

EBAZPENA, 1999ko apirilaren 14koa, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariarena, «Control Gas, S.C» baimendutako enpresaren titularra den Emilio E. Rodríguez Fernández jaunaren eta enpresa horretako instalatzaile baimendua den David Cortés Blanco jaunaren aurka zigor espedientea ireki dela jakinarazteko dena.

Emilio E. Rodríguez Fernández jaunari —Ricardo Arregi 27 zk. 48008 Bilbao da ezagutzen zaion azkenengo helbidea— jakinarazten zaio Saila honek apirilaren 14an honako ebazpen hau eman duela.

AURREKARIAK

Bat.– Bizkaiko Lurralde Bulegoak 1997ko azaroaren 28an 33/IG2-606 zenbakia duen baimendutako enpresa ziurtagiria, gas instalatzaile espezialitatean eta EG-II mailan eman zion «Iglesias Quesada, Juan José eta beste batzuk, S.C» enpresari. Enpresa horren titularra eta ordezko legala Emilio E. Rodríguez Fernán-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

N°-2705

RESOLUCIÓN de 14 de abril de 1999, del Director de Administración de Industria y Minas, por la que se declara la apertura de expediente sancionador contra D. Emilio E. Rodríguez Fernández, como titular de la empresa autorizada «Control Gas, S.C» y contra D. David Cortés Blanco, como instalador autorizado de la referida empresa.

Se comunica a D. Emilio E. Rodríguez Fernández, cuyo último domicilio conocido es c./ Ricardo Arregui, n.º 27, 48008 Bilbao, que este Departamento con fecha 14 de abril, ha dictado la resolución que a continuación se transcribe:

ANTECEDENTES DE HECHO

Uno.– Con fecha 28 de noviembre de 1997, por la Oficina Territorial de Bizkaia se emite el Certificado de Empresa Autorizada n.º 33/IG2-606 en la especialidad de instaladora de gas, categoría EG-II, correspondiente a la empresa « Iglesias Quesada, Juan José y Otros, S.C», inscrita con esta misma denominación en el Re-

dez jauna da, eta baimendutako enpresen erregistroan izen berarekin inskribatua dago.

Halaber, enpresa horretan instalatzaile baimendu bezala David Cortés Blanco jauna agertzen da.

Enpresaren jardueran eta hirugarrenekin duen harremanetan Control Gas, S.C. izen komertziala agertzen da. Aipatutako izena bat dator pertsona fisiko titularraren izenarekin, eta ez dago inolako dokumenturik esaten duena izen hori beste pertsonalitate juridikoaren izenarekin koinziditzen duenik.

Bi.– Aipatutako enpresa Bizkaiko Lurralde Historikoan lanean hasi zenetik, salaketak, erreklamazioak eta aipatutako jardueraren ondorioz sortutako kejak behin eta berriro errepikatu dira. Enpresak aldizkako berrikusketa lanak egiten zituen gas instalazioetan eta Industria, Energia eta Meategien Lurralde bulegoko buruak eman zuen ebazpenaren bidez lanean jarraitzea debekatu zitzaion (1998ko abenduaren 1a).

Aurkeztutako kejen artean eta saila honek gai horretan duen ahalmenari dagokionez, aipatu behar da enpresak ez dizkiola eman instalazioaren jabeei berrikusketa egin izanaren ziurtagiria, berrikusketa egin dela egiaztatzen duena eta instalazioa zein egoeratan dagoen zehazten duena.

Hiru.– Horretaz gain, eta espedientean zehaztuta agertzen den moduan, Bizkaiko Lurralde Bulegotik eta beste organo eskudunetatik behin eta berriro dei egin zaio aipatutako ziurtagiriak aurkez ditzan, baita Autonomia Erkidegoan mota horretako enpresek bere lana egin dezaten bete behar dituzten baldintzak eta betebeharrak betetzen dituela egiaztaten duen dokumentazioa ere.

1.– Bizkaiko Lurralde Bulegoak 1998ko urtarrilaren 22an dei egin zion enpresari 10 eguneko epean honako dokumentazio hau Lurralde Bulegoan aurkez zezan:

Enpresa honek gas arloan eta Lurralde Historiko honetan egin duen lanaren txosten zehatza, habilitatutako enpresa bezala araututako arlo horretan hasi zenetik.

Lurralde honetan enpresa horrek egin dituen gas natural zein gas butano/propanoko instalazioen berrikusketa guztien banakako zerrenda.

Aurreko puntuan aipatu diren instalazioetan enpresa honek egin dituen lanak egiaztatzen dituen dokumentazio guztia (berrikusketa ziurtagiriak, fakturak...).

gistro de Empresas Autorizadas y figurando como titular y representante legal D. Emilio E. Rodríguez Fernández.

Así mismo, como instalador autorizado en la referida Empresa figura D. David Cortés Blanco.

Dentro de su actuación y en su relación con terceros, la empresa figura con el nombre comercial de Control Gas, S.C. No consta ninguna inscripción que demuestre que la referida denominación se corresponda con una personalidad jurídica distinta de la que figura inscrita como persona física titular de la empresa autorizada.

Dos.– Desde el inicio de su actividad en el Territorio Histórico de Bizkaia, las denuncias, reclamaciones y quejas derivadas de la actuación de la mencionada empresa fueron reiteradas y continuas, actuación que hasta la fecha de Resolución del Jefe de la Oficina Territorial de Industria, Energía y Minas por la que se ordenaba la paralización cautelar de la mencionada empresa autorizada (1 de diciembre de 1998) se limitó a la realización de inspecciones periódicas de instalaciones de gas.

Del diverso contenido de las denuncias presentadas y por lo que respecta a la estricta competencia de este Departamento en la materia, hay que hacer referencia incuestionablemente a la falta de entrega, por parte de la referenciada empresa, al titular de la instalación inspeccionada del correspondiente Certificado de Inspección acreditativo de la realización de la mentada inspección y del estado de la instalación.

Tres.– Así mismo de forma reiterada, tal como consta en el expediente, tanto desde la Oficina Territorial de Bizkaia como desde otros órganos competentes en la materia, se le ha requerido para que entregase los mencionados Certificados, así como para la presentación de determinada documentación que acreditase el cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidas para la actuación de este tipo de empresas en esta Comunidad Autónoma.

1.– Con fecha 22 de enero de 1998, el Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia, requiere a la empresa, para que en el plazo de 10 días, presente en la Oficina Territorial la siguiente documentación:

Informe detallado de las actuaciones seguidas por esa empresa en el ámbito reglamentario del gas, en este Territorio Histórico, desde el inicio de su actividad en el mismo como Empresa Habilitada en dicho campo reglamentario.

Relación individualizada de todas las instalaciones, de gas natural y gas butano/propano, revisadas por esa empresa en éste ámbito territorial.

Toda documentación (Certificados de Revisión, facturas,...) acreditativa de las intervenciones efectuadas por esa empresa en las instalaciones referidas en el punto anterior.

2.– Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruak 1998ko maiatzaren 26an aurretik egindako eskaerak ez zirelako bete berriro deitu zion enpresari eta dokumentazio bera eskatu zion baina oraingoan bost eguneko epean aurkezteko. Honetaz gain eskaerari kasu ez egiteak ekar diezaiokeen arau-haustea eta zigorra baita dagokion zigor espedientea izapidatzen ari dela ohartaraztea.

3.– Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruak 1998ko uztailaren 30ean, berriro deitu zion eta deiarekin batera 1998ko maiatzaren 26an egindakoa ere bidali zion. Dei horren bidez berriro eskatu zitzaion dokumentazioa eta jarduera horretan aritu ahal izateko ordaindu behar den ardura zibileko poliza ordaindu izanaren ziurtagiria, poliza atera zuen egunetik bertatik.

Lau.– Industria, Energia eta Meategiak Administratzeko Zuzendaritzaren Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruak 1998ko abenduaren 1ean ebazpena eman zuen eta bertan «Control Gas, S.C.» enpresa baimenduari kautelazko itxiera ezarri zitzaion.

Bost.– Industria, Energia eta Meategien Bizkaiko Lurralde Bulegoko buruak 1998ko abenduaren 16an ebazpena eman zuen eta «Control Gas, S.C» enpresa baimenduari bere lanean jarduten jarraitzea debekatzen zion ebazpena berretsi eta mantendu egin zuen. Gelditze hori 1999ko abenduaren 1eko ebazpenaren bidez agindu zen.

Sei.– 1998ko abenduaren 1eko Ebazpena, 1998ko abenduaren 7ko sinadura duena, «Control Gas, S.C.» enpresari eman zitzaionetik ez da enpresaren aldetik erantzunik jaso.

Honako erabaki hau hartzeko orduan kontuan hartu eta aipatu behar dira honako

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Bat.– Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariak du ebazpen hau eta zigor espedientearekin bukatuko duena hartzeko ahalmena. Ahalmen hori honako legeetako eta dekretuetako artikuluek esaten dutenaren araberakoa da: otsailaren 20ko Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek zigortzeko duten ahalmenari buruzko 2/1998 Legearen 29. artikulua; otsailaren 23ko Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen 131/1999 Dekretuaren 18. artikulua; eta azaroaren 7ko Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saileko jarduketa eremuan zeintzuk diren eskumenak zigor prozeduretan 471/1995 Dekretuaren 4. artikulua. Azkenengo dekretu horrek Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailari eskumenak ematen dizkio zigor prozeduretan.

2.– Con fecha 26 de mayo de 1998, el Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia, envía nuevo requerimiento a la empresa referida por incumplimiento del anterior, reiterándole la presentación de la documentación e información solicitada en el plazo de 5 días y apercibiéndole de la tramitación del oportuno expediente sancionador, y de la infracción y sanción en la que pudiera incurrir caso de no hacerlo.

3.– Con fecha 30 de julio de 1998, el Jefe de la Oficina Territorial de Bizkaia, envía nuevo requerimiento a la empresa, adjuntándole el enviado con fecha 26 de mayo de 1998, reiterándole una vez más el requerimiento para que presente la documentación solicitada y, requiriéndole, a su vez, para que presente el justificante de haber efectuado el pago de su póliza de responsabilidad civil para su actividad, desde la fecha de emisión de la misma.

Cuatro.– Con fecha 1 de diciembre de 1998, el Jefe de la Oficina Territorial de la Dirección de Administración de Industria, Energía y Minas de Bizkaia, emite Resolución por la que se ordena la paralización cautelar de la Empresa Autorizada « Control Gas, S.C.».

Cinco.– Con fecha 16 de diciembre de 1998, el Jefe de la Oficina Territorial de la Dirección de Industria, Energía y Minas de Bizkaia, emite Resolución por la que se ratifica y mantiene la paralización cautelar de la Empresa Autorizada « Control Gas, S.C.», ordenada mediante Resolución de 1 de diciembre de 1999.

Seis.– Desde la fecha de entrega de la Resolución de 1 de diciembre de 1998, a la empresa « Control Gas, S.C.», con firma de 7 de diciembre de 1998, no hay constancia de que la misma haya contestado a los requerimientos efectuados.

Para la adopción de la presente resolución es preciso tener en cuenta y hacer referencia a los siguientes:

FUNDAMENTOS JURIDICOS

Uno.– La competencia para dictar la presente Resolución, así como la que ponga fin al presente expediente sancionador, corresponde al Director de Administración de Industria y Minas en virtud de lo establecido en el Artículo 29 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco; en relación con lo dispuesto en el Artículo 18, del Decreto 131/1999, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con lo dispuesto en el Artículo 4 , del Decreto 471/1995, de 7 de noviembre, por el que se atribuyen competencias en materia de procedimientos sancionadores en las áreas de actuación del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

Bi.– Maiatzaren 17ko Industria eta Energia Sailak emandako 175/1994 Dekretuak profesionalen karnetak lortzeko prozedura bateratu zuen, eta instalazioak, mantenimenduak eta industria seguritatearekin zerikusia duten beste jarduerak egiten dituzten baimendutako enpresei eskatzen zaizkion baldintzak zehaztu zituen. Dekretu horrek 14.h artikuluan dio: «indarrean dagoen araudian zehaztutako instalazio edo berrikusketaren derrigorrezko ziurtagiriak egin beharko direla. Aipatutako ziurtagiriak tituludun teknikari batek, baimendutako langileak edo araudi teknikoak horrela agintzen duenean kreditatutako pertsonak egin beharko ditu; azkenengo bien kasuan baimendutako enpresako langileak eta horretarako habilitatuak izan beharko dira eta enpresaren abala eduki beharko dute».

Hiru.– Aurreko paragrafoan esandakoarekin lotuta 1985eko abenduaren 17an agindua eman zen. Horren bidez erregaia den gasa hartzeko instalazioen zerbitzuari eta dokumentazioari buruzko instrukzioa, eta baimendutako gas instalatzaile eta enpresa instalatzaileei buruzkoa onartu zen. Agindu horren 9. artikuluan enpresa instalatzaileen beharrrei buruz dio: «Indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen derrigorrezko ziurtagiriak ematea gas instalazioa edo berrikusketa egin dela frogatzen duena, hain zuzen ere. Aipatutako ziurtagiriak gas instalatzaile baimenduak egingo ditu, eta hori egiteko habilitatua egongo da jardunketa horretarako baita enpresa instalatzailearen abala eduki ere».

Lau.– Gas Erregaien Zerbitzu Publikoaren Araudi Orokorra, urriaren 26ko 2913/1973 Dekretuaren bidez erabakitakoa, bere 27. artikuluan erabiltzaileen beharrari buruz dio: «instalazioen mantenimendua kontadoretik bertatik behar bezala egitea, eta behar bezala erabiltzea. Horretarako lau urtetan behin instalatzaile baimendu batek aldizkako berrikusketak egin beharko ditu baita egin izanaren ziurtagiria eman ere. Ziurtagiri horrek berrikusketa egin zeneko data edukiko du, erabiltzaileari kopia bat emango dio eta beste bat gordeko du horniketa enpresak eskatuz gero berari emateko.

Bost.– Irailaren 11ko 1085/1992 Errege Dekretuaren bidez petroleoaren gas likuatuen banaketaren jarduera arautzen da eta 22.1 artikuluan dio: «Horniketa kontratuaren titularrek, eta hau ez bada erabiltzaileek egoera onean mantendu beharko dute petroleoaren gas likuatuak hartzen dituzten instalazioak, hori lortzen da ondo erabiltzen eta bost urtero egin behar diren berrikusketak egiten. Berrikusketa horiek baimendutako enpresek egin beharko dituzte baita egin izanaren ziurtagiria eman ere.

Aipatutako 22.2 artikuluak dio: «Aurreko idatz-zatian aipatzen diren ziurtagiriak hiru aletan egin beharko dira. Bat erabiltzaile edo titularrarentzat, beste bat horniketa enpresarentzat eta hirugarrena enpresa instalatzailearentzat».

Dos.– El Decreto 175/1994, de 17 de mayo, del Departamento de Industria y Energía, por el que se unifica el procedimiento para la obtención de los Carnés Profesionales y se definen las exigencias para las Empresas Autorizadas que realizan instalaciones, mantenimientos u otras actividades en materia de seguridad industrial, establece en su Artículo 14, párrafo h) , « Emitir los preceptivos certificados de instalación o de revisión que se fijen en las Reglamentaciones vigentes. Dichos certificados serán suscritos, en su caso, por un Técnico Titulado competente, por un profesional autorizado o, cuando así lo señale la Reglamentación Técnica correspondiente, por persona acreditada, pertenecientes estos dos últimos a la Empresa autorizada, habilitados para la operación de que se trate y avalados por la Empresa.

Tres.– En relación con lo citado en el párrafo anterior, la Orden de 17 de diciembre de 1985, por la que se aprueba la Instrucción sobre documentación y puesta en servicio de las instalaciones receptoras de gases combustibles y la Instrucción sobre Instaladores Autorizados de gas y Empresas Instaladoras, establece en su Artículo 9, dentro de las obligaciones de las Empresas instaladoras de gas « Emitir los preceptivos certificados de instalación de gas o de revisión que se fijen en las reglamentaciones vigentes. Dichos certificados serán suscritos por un Instalador autorizado de gas habilitado para la operación de que se trate y avalados por la propia Empresa instaladora de gas».

Cuatro.– El Reglamento General del Servicio Público de Gases Combustibles, aprobado por Decreto 2913/1973, de 26 de octubre, establece en su artículo 27, como obligación de los usuarios « mantener en perfecto estado de conservación sus instalaciones a partir del contador, así como hacer el uso adecuado de la misma, y para ello deberá realizar revisiones periódicas cada cuatro años utilizando los servicios de un instalador autorizado, que extenderá un certificado acreditativo de la revisión efectuada y fecha en que se realizó, que entregará al usuario, y copia que conservará a disposición de la empresa suministradora».

Cinco.– El Real-Decreto 1085/1992, de 11 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de la actividad de distribución de gases licuados del petróleo, establece en su Artículo 22.1 «Corresponde a los titulares del contrato de suministro, y en defecto de éste a los usuarios, la obligación de mantener en perfecto estado de conservación las instalaciones receptoras de gases licuados de petróleo, usándolas adecuadamente y revisándolas periódicamente cada cinco años, utilizando para dicho fin los servicios de una empresa legalmente habilitada para ello, que expedirá certificación acreditativa de la revisión efectuada.»

El mencionado Artículo 22, en su apartado 2, dispone «De las certificaciones a que se refiere el apartado precedente se extenderán tres ejemplares, de los que uno quedará en poder del usuario o propietario, otro se enviará a la empresa suministradora y el tercero quedará en poder de la empresa instaladora».

Sei.– Industria eta Energia Sailak maiatzaren 17an 175/1994 Dekretua eman zuen; horren bidez profesionalen karneta lortzeko prozedura bateratu zen eta instalazioak, mantenimendua edo industria seguritatearekin zerikusia duten jarduerak egiten dituzten baimendutako enpresek jarraitu behar dituzten exijentziak definitu ziren. Dekretu horren 14.k) artikuluan baimendutako enpresen beharren artean, dio: «V. eranskinean aurreikusitako auditoriak egiteko eskatzen den dokumentazioa eta baliabideak eman beharko dizkio Industriako Lurralde Ordezkaritzari».

Zazpi.– Beraz araudiak dio gas instalazioen berrikusketak profesionak baimendu batek egin behar dituela lau urtetan behin, eta egiten dituen enpresak berrikusketaren ziurtagiria eman beharko diola erabiltzaileari.

«Iglesias Quesada, Juan José eta beste batzuk, S.C.» enpresak baimena du lan horiek egiteko, baina aurkeztutako erreklamazioak, egindako salaketak eta espedientean dagoen bestelako dokumentazioa ikusita esan daiteke berrikusketa horiek ez direla egin araudiak dioen moduan.

Halaber, lehen aipatutako oinarriek diotenez, baimendutako enpresak Industriako Lurralde Ordezkaritzak eskatzen dizkion dokumentuak zein baliabideak aurkeztu beharko ditu, legeak edo araudiak hala eskatuta.

Espedientean ikus daitekeenez aipatutako enpresak ez ditu behar horiek bete, izan ere, Industriako Lurralde Ordezkaritzak eskatutako dokumentazioa ez baitu aurkeztu.

Zortzi.– Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legeak, 31.2d) artikuluan arau-hauste larritzat jotzen du: «Industria jarduera eta instalazioen titularrek Herri Administrazioek eskatzen duten informazioa emateari uko egitea legeak edo araudiak hori eman behar dela dioenean».

Espedientean dagoen dokumentazioari begira «Iglesias Quesada, Juan José eta beste batzuk, S.C.» enpresak, Bizkaiko Industriako Lurralde Ordezkaritzak egindako eskaerei kasurik egin ez diela ikusten da. Eskaera horiek egindako berrikusketen dokumentazioa eta ziurtagiriak aurkezteari, eta horiek egiteko prozedura azaltzeari dagozkie.

Bederatzi.– Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legeak 31.3a) artikuluan arau-hauste arintzat jotzen du: «Araudiaren edozein agindu, aurreko idatz-zatietan ez dagoena, ez betetzea».

Seis.– El Decreto 175/1994, de 17 de mayo del Departamento de Industria y Energía, por el que se unifica el procedimiento para la obtención de los Carnés Profesionales y se definen las exigencias para las Empresas Autorizadas que realizan instalaciones, mantenimientos u otras actividades en materia de seguridad industrial, establece en su Artículo 14, dentro de las obligaciones de las empresas autorizadas, apartado K) « Facilitar la documentación y medios que le sean requeridos por la Delegación Territorial de Industria para efectuar las auditorías previstas en el Anexo V.

Siete.– De los fundamentos anteriores se desprende que la normativa obliga a que se realicen revisiones periódicas cada cuatro años de las instalaciones de gas, pero éstas deben ser realizadas por profesionales debidamente autorizados y la empresa que las realice tiene la obligación de entregar al usuario el certificado acreditativo de la revisión.

Es cierto que la empresa «Iglesias Quesada, Juan José y Otros, S.C» es una empresa debidamente autorizada, pero de las reclamaciones y denuncias presentadas y demás documentación que obra en el expediente, se deduce que las revisiones no han sido hechas por el procedimiento establecido reglamentariamente.

Así mismo, de los fundamentos aludidos con anterioridad se desprende que las empresas autorizadas deberán facilitar la documentación y medios que le sean requeridos por la Delegación Territorial de Industria establecidos legal o reglamentariamente.

Del expediente se deduce claramente el manifiesto incumplimiento por parte de la aludida empresa de la mencionada obligación al hacer caso omiso de los requerimientos de la Delegación Territorial de Industria a este respecto.

Ocho.– La Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria, en su Artículo 31.2, apartado d), califica como infracción grave «La resistencia de los titulares de actividades e instalaciones industriales en permitir el acceso o facilitar la información requerida por las Administraciones Públicas, cuando hubiese obligación legal o reglamentaria de atender tal petición de acceso o información».

La empresa «Iglesias Quesada, Juan José y Otros, S.C», como se deduce de la documentación obrante en el expediente, ha hecho caso omiso de los requerimientos efectuados por la Oficina Territorial de Industria de Bizkaia, en lo que se refiere a presentar la documentación sobre las revisiones efectuadas y las consiguientes certificaciones, así como el procedimiento utilizado al realizar las inspecciones.

Nueve.– La ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria, en su Artículo 31.3, apartado a), califica como infracción leve « El incumplimiento de cualquier otra prescripción reglamentaria no incluida en los apartados anteriores.»

Espedientean dagoen dokumentazioan ikus daiteke aipatutako enpresak ez dituela aurkeztu egindako balizko berrikusketen ziurtagiriak.

Hamar.– Industriako uztailaren 16ko 21/1992 Legeak, 34.1.b) artikuluan dio arau-hauste larriengatik 500.001 PTAtik 15.000.000 PTAra doan isuna jarri ahalko dela eta diru kopurua zehazteko orduan honako irizpide hauek erabiliko direla: egin den kaltearen garrantzia, kalte horrekin lortutako etekina eta parte-hartze gradoa, araua hautsi duenaren ahalmen ekonomikoa, intentzionalitatea arau-haustean eta reinzidentzia.

Artikulu berak arau-hauste arinentzat 500.000 PTAko isuna ezartzen du.

Aipatutako legeak eta bestelako xedapen orokor eta aplikazio berezikoetan ezarritakoa aztertuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– «Iglesias Quesada, Juan José eta beste batzuk S.C.» enpresari eta enpresa horretako instalatzaile baimendua den David Cortés Blanco jaunari zigor espedientea irekitzea, Industriaren Legeko 31.2.d) artikuluan zehazten den arau-hauste larria eta artikulu bereko 3.a) idatz-zatian zehazten den arau-hauste arin bat egin baitute.

2.– Behin-behingoz arau-hausteak larri bezala bat eta arin bezala bestea sailkatzea. Industria Legearen 31.2.d artikuluan zehaztutakoa larria eta artikulu beraren a) idatz-zatian arina. Arau-hauste horiei ezarriko zaien isuna 3.000.000 PTA-koa izango da larriarentzat eta 500.000 PTA-koa arinarentzat. Hala ere, espediente honen instrukziotik ateratzen den balorazioaren arabera aldatu ahalko da.

3.– Jakinaraztea Saila honetako Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzak prozedura honetako instruktore Lege Aholkularitzako funtzionarioa den Cristina Salas Cristóbal andrea izendatu duela.

4.– Jakinaraztea ezespen erregimena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 29. artikuluan ezarritakoa dela.

5.– 15 eguneko epea ematea interesdunei nahi beste alegazio, agiri edo txosten aurkez ditzan; probak aurkezteko epe bat ireki dadin; eta beharrezkotzat jotzen dituen froga-bideak proposa dadin.

6.– Erabaki hori interesdunei berehala jakinarazteko agindua ematea, eta instruktoreari bidaltzea. Hori legeak ezartzen duen moduan egin beharko da.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko apirilaren 14a.

Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendaria,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.

De la documentación obrante en el expediente se puede deducir razonablemente que la empresa aludida no ha entregado los certificados correspondientes de las supuestas revisiones efectuadas.

Diez.– La Ley 21/1992, de 16 de julio, de Industria, establece en su Artículo 34, punto 1, apartado b) que las infracciones graves serán sancionadas con multas desde 500.001 hasta 15.000.000 de pesetas, y para determinar la cuantía de las mismas se atenderá a criterios tales como la importancia del daño o deterioro causado, el grado de participación y beneficio obtenido, la capacidad económica del infractor, la intencionalidad en la comisión de la infracción y la reincidencia.

El mismo artículo, para las infracciones leves, prevé multas de hasta 500.000 pesetas.

Vistos los preceptos legales citados y demás disposiciones de general y concordante aplicación,

RESUELVO:

1.– Ordenar la apertura de expediente sancionador a la empresa «Iglesias Quesada, Juan José y Otros, S.C.», y a D. David Cortés Blanco, como instalador autorizado de la referida empresa, por la comisión de una falta grave tipificada en el Artículo 31.2.d), de la Ley de Industria, y una infracción leve prevista en el punto 3, apartado a), del mismo Artículo.

2.– Con carácter provisional, calificar las infracciones cometidas, una como falta grave tipificada en el Artículo 31.2, d), de la Ley de Industria, y una infracción leve prevista en el punto 3. Apartado a) del mismo Artículo, imponiéndose las sanciones de 3.000.000 pesetas por la infracción grave y otra de 500.000 pesetas por la infracción leve, todo ello pendiente de la valoración que resulte de la instrucción del presente expediente.

3.– Informarle que por la Dirección de Servicios Generales de este Departamento, se ha designado Instructora de este procedimiento a la funcionaria de la Asesoría Jurídica, Dña. Cristina Salas Cristóbal.

4.– Poner en su conocimiento que el régimen de recusación es el previsto en el Artículo 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Conceder el plazo de 15 días para que los interesados aporten cuantas alegaciones, documentos o informaciones estimen convenientes, así como para solicitar la apertura de un periodo probatorio y proponer los medios de prueba que consideren adecuados.

6.– Ordenar la inmediata notificación, en forma legal, de la presente Resolución a los interesados y su remisión al Instructor.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 1999.

El Director de Administración de Industria y Minas,
RUBEN MENDIOLA ERKOREKA.